

IKHA-COCU AMAITUTA ORAIN ZER?

ABUZTUAN ZEHAR KONTUAN HARTU BEHARREKO INFORMAZIOA



abuztuak 1etik 23ra
urgentziarako beharrak:
urgentziakokontsultak@lab.eus



Abuztuko azken astean:

Araba: 945 25 58 77
Bizkaia: 94 470 69 00
Gipuzkoa: 943 45 86 40

irakaskuntzagipuzkoa@lab.eus
irakaskuntzaaraba@lab.eus
irakaskuntzabizkaia@lab.eus
lanbideheziketa@lab.eus



GIDA SINDIKALA

Maiz egiten ditugun
galderei erantzuna



www.irakaskuntza.lab.eus

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

Esleipenetan postua esleitu bazaizu

- ✓ **Hezkuntzan lanean zauden lehen aldia bada, Tramitagunera honakoak bidali:**
 - **Fitxa hau**
 - NANaren kopia
 - Titulu akademikoen kopia
- ✓ Halaber, **Hezigunean** zure datuak Sexu Delitugileen Erregistro Nazionalean kontsultatzeko baimena eman.
- ✓ Esleitutako ikastetxeko Zuzendaritzarekin harremanetan jarri, **ebazpenak** dioenez.

Abuztuaren 17a

- ✓ **Ordezlagunea** zabalduko da berrir, 12:00etan.
- ✓ **Egin daitezkeen aldaketak** (abuztuaren 17tik 25era, biak barne)
 - Lan egoera aldatu
 - Ordezlagunean erregistratu,
 - Babestutako egoera aktibatu

Abuztuaren 19a

- ✓ **EIZU berrir zabalduko da**, Lizentziak eta Baimenak eskatzeko:
 - **Kontuz** bakoitzak behar dituen epeekin, batzutan abisua 10 egun baliodun lehenago eman behar da eta.
 - Hauen inguruko informazio gehiago: **LABen Gida Sindikalean**.

Abuztuaren 25a

- ✓ 14:00etan aukeratu beharreko **lanpostuen behin-behineko zerrenda** argitaratuko da:
 - Abuztuaren 25eko 14:00etatik abuztuaren 26ko 10:00ak arte erreklamazioak **Hezigunetik** (zentroetako zuzendaritzek).

Abuztuaren 27a

- ✓ Lanpostuen behin betiko argitalpena eta lanpostuak eskatzeko epearen hasiera **Ordezlagunean**.
 - Abuztuaren 27ko 12:00etatik abuztuaren 27ko 18:00etara.
 - Ikasturte osoko lanpostuak eskainiko dira, eta emaitza egunean zehar argitaratuko da.
- ! **KONTUZ!**
 - Birbaremazioan hautatutako aukerak soilik egongo dira erabilgarri, eta 2. afinitateak ere kontuan hartuko dira.
 - Lanpostuak hutsik geratzen badira ofizioz esleituiko dira, puntuazio gutxien duten irakasleetatik hasita.

Irailaren 1a

- ✓ IKHAN zein abuztuko Ordezlagunean lanpostua lortutako langileek **ikastetxera bertaratu** beharko dute lanera **lanpostuaren jabetza egitera**.
- ✓ Hitzarmen berriari esker, **irailaren 1ean jabetza egin ezin duten langileei azaroaren 30a arte gordeko zaie lanpostua**, beti ere babestutako egoerara igarotzeko eskaera eginda, arrazoi hauetako batengatik:
 - Aldi baterako ezintasuna.
 - Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako baja.
 - Haurdunaldiko arriskua edo arriskuko haurdunaldia.
 - Amatasun, aitatasun, adopzio edo harreragatiko lizentzia.
 - 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzea.
 - Indarkeria matxistaren biktima izatea.

Hau egiterakoan zerbitzu-denbora **Ordezkoen Araudiaren 29. artikuluan** arabera zenbatuko da.



Gogoratu!

- ✓ Ordezkoen gaiari zein bestelakoei lotutako argibide gehiago nahi izanez gero, eskura duzu LABen **Gida sindikala**.